

ANIMALIAK ETA PERTSONAK

Elkarbizitza eta osasuna



Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala

Egikaritze eta koordinazioa: Rosario Preciado Ruiz de Gauna, José Alfonso Fernández Basterra eta Juan Aramburu Agirre. Osasun eta Kontsumo Udal Saila-Demsac

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: Komunikazio Bulegoa. Vicente Perales

Koordinazio teknikoa: Komunikazio Bulegoa. Txaro Zatón

Itzulpena: Euskara Zerbitzua

Inprimatzea: EVAGRAF S. Coop.

L.G.: o

AURKIBIDEA

▪ Animaliak babesteko zentroa: Helburuak eta zereginak	5
▪ Adopzio arduratsua	9
▪ Animaliek pertsoneri kutsatu ahal dizkieten gaixotasunak	13
1. Gorotzekiko kontaktuaren bidezko kutsadura	14
2. Jariakin eta gernuarekiko kontaktuaren bidezko kutsadura.	18
3. Kontaktu zuzenaren bidezko kutsadura.	18
4. Hozkaden bidezko kutsadura.	20
5. Intsektuen ziztaden bidezko kutsadura	21
Prebentzio neurri orokorrak	23
Gizakiek harrapa ezin ditzaketen gaixotasunak	24
▪ Gomendioak	25

ANIMALIAK BABESTEKO ZENTROA

Helburuak eta zereginak




Animalien Babeserako Zentroa (ABZ) Vitoria-Gasteizko Udaleko Osasun eta Kontsumo Sailaren menpeko zentroa da, eta Sanitate eta Kontsumo Zerbitzuari atxikita dago.

Helburu nagusia **osasun publikoa** babestea da, **animalien osasuna eta ongizatea** sustatuz.

Funtsean hauek dira zentroaren zereginak:

- Kaleko animaliak, animalia abandonatu eta galduak jasotzea.
- Animaliak babestea, instalazioetan ostatu emanez eta bertan jana, aterpea eta albaitaritza zaintza eskainiz.
- Animalia galduen jabeak aurkitzea.
- ABZn dauden animaliak adoptatuko dituzten etxeak bilatzea.
- Animalien babesa eta adopzio "arduratsua" sustatzeko eta abandonua eragozteko kanpainak egitea.
- Web orria mantendu eta eguneratzea; adoptatzeko dauden txakurren berri izan daiteke horren bitartez.
- Txakurren Erroldaren erregistroa.
- Animaliekin bizitzeko osasunaz eta higieñez kontuan izan beharreko zenbait alderdiren berri emateko jarduerak programatzea.
- Animaliak eduki eta babestearekin lotutako araudiak jakinaraztea.
- Animaliak zaindu eta babesteko zein animalien eta pertsonen arteko elkarbizitza atsegina lortzeko neurri eraginkorrak ezartzea.
- Animaliak eduki eta babesteko legeak bete daitezzen bermatzea, alor horietako arauak hausten dituzten pertsonen aurkako dossier zigortzaileak abiaraziz.
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimenak eta erregistroko agiriak ematea.

Animaliak Babesteko Zentroak, bestalde, albaitaritza zerbitzu propioak ditu; zeregin hauetaz arduratzen dira, besteak beste:



Txakurra edo katua nahi baduzu, Animaliak Babesteko Zentroak adin eta arraza asko eskaintzen dizu dohain, zuk aukera dezazun

- Animaliak Babesteko Zentroan dauden animaliak aztertu eta zaintzea.
- Txertatzeko eta parasitoak kentzeko planak landu eta ezartzea.
- Animaliak identifikatzeko mikrotxipak jartzea.

Zerbitzu horietako batzuk 24 orduz egoten dira jardunean, baita asteburuetan ere, “albaitaritza larrialdietarako zerbitzua”, esaterako, zenbait klinikaren lankidetzaren, edo animalia galduak biltzeko zerbitzua.

Animalien eta jabeen artean erantzukizun harremana sustatzen saiatzen gara, animalien ongizatea eta animaliekin egokitzen diren herritarren (etxeko animalien jabe izan ala ez) ongizatea lortze aldera.

Beraz, gure zentroan dauden animaliak adoptatu ditzaten nahi dugu, baina **adopzio arduratsua** izatea nahi dugu, animalia eta jabe berrien artean auzirik sor ez dadin, edo beste animalia edo pertsona batzuekin. Izan ere, azken helburua animalien abandonua edo berriro zentrorantz itzuli beharra eragozte da.

Guztiak ez gaude prestaturik konpainiako animalia bat adoptatzeko. Horretarako denbora, pazientzia, maitasuna eta diru pixka bat behar da, eta batez ere, gizalegez jokatu eta zentzuduna izan behar da, konpainiako animalia bat edukitzeko pribilegioak ezin baitu liskarrik sortu, ez eta animaliekiko harremana zuk bezala ulertzen ez duten pertsonen eskubideak urratu ere.

Gure zentroan animalia adoptatzeko baldintza bakarra adinduna izatea da, edo gurasoen baimena izatea, eta horrek dakarren erantzukizuna norberaren gain hartzea. Adoptatzeko unean nortasun agiria erakutsi beharko da.

Oraindik mikrotxipik ez duten txakurrei hura jartzeak dakarren kostua baino ez da ordaindu behar.


ANIMALIAK BABESTEKO ZENTROA

Armentiajana z/g

945 143410

www.vitoria-gasteiz.org/cpa

ADOPZIO ARDURATSUA



Txakur edo katu bat urte asko bizi daiteke, beraz, adoptatzeko erabakia arretaz eta **arduraz** hartu behar da. Ez da asteburu baterako jostailua.


Poz handia emango digu, baina **betekizun** batzuk ere ekarriko dizkigu, eta horiek gure gain hartzeko prest egon behar dugu, bai guregatik bai besteengatik, pertsona guztiek ez baitituzte animaliak berdin atsegin.

Animalia bat **adoptatu**, **erosi** edo **oparitzea** erabaki aurretik, ondo pentsatu beharko genuke, eta gerora ekar ditzakeen arazoez informatu.

Funtsezko da animalia **heztea**, jokamolde batzuk zehaztuz.

Askotan jendea bere animaliez kexu da, ez direlako espero zuten bezalakoak.

Animalia bat adoptatu aurretik, leku, denbora, diru eta ezagutza nahiko dugun pentsatu behar dugu



Kexatzeko arrazoietakoz batzuk aipatuko ditugu: txakurra hezi-gaitza eta esan txarrekoa dela, maizegi zaunka egiten duela, ez duela beharrak etxetik kanpo egiten ikasten, ile gehiegi erortzen zaiola, araldian etxea zikintzen duela,...; katuak altzariak eta errezelak atzaparkatzen dituela, etxe osoan zehar pixa egiten duela, gauean miauka aritzen dela ateratzeko, katemeek araldian zalaparta handia egiten dutela,...


Egoera horiek guztiek badute **irtenbiderik**, baina funtsezkoa da gutxieneko ezagutza batzuk izatea eta, beharrezkoa bada, profesionalen laguntza eskatzea, bestela tratu txarrak edo abandonuak gerta bailitezke.

Horregatik, txakur edo katu bat hartu eta gure ingurunean sartzeak dakarrenaz gogoeta egitea komeni da, eta kontuan izan hura luzaro egon daitekeela gurekin, batzuetan **15 urte** baino gehiago.

Konpainiako animalia bat eskuratzeko erabakia hartu baino lehen zenbait alderdi **hartu behar dugu aintzat**:

- . Badugu hura edukitzeko **leku** egokirik?
- . Badugu lagun berriari eskaintzeko **astirik**?
 - Beharrak egitera ateratzeko eta haren gorozkiak jasotzeko astia.
 - Ariketak egin eta harekin jolasteko astia, euria, elurra edo beroa izan.
 - Albaitariarengana eramateko astia.

- Behar bezala hezteko astia.
- Eskuilatzeko, bainatzeko,... astia.
- . **Oporretan** kanpora goazenean zer egingo dugu harekin?
- . Badugu pazientzia eta gutxieneko ezagutzarik behar bezala **hezteko**?
- . Badugu haiekin lotutako **araudien** berri?
- . Badakigu zein **gastu** ekarriko digun?
 - Janari gastuak
 - Osasun tratamenduen gastuak (albaitaria eta abar)
 - Mikrotxipa jartzea
 - Erantzukizun zibileko aseguruak
- . Badakigu zein espezie (txakurra, katua,...) eta arraza egokitzen zaien ondoen gure ahalmenei?



Gure asmoa ez da inor atzera eragitea, ez eta gutxiagorik ere. Animalia batekin bizitzeak kentzen diguna baino gehiago ematen digula uste dugu, eta gure lagun berriek ekarriko dizkiguten onurak aipatu ditugun eragozpen horien ordaina izan-go direla.

Txakurra edo katua zain edukitzea, jatekoa urduri eskatzen duen edo gure arreta behar duen animalia bat izatea... zaila da horrek sortzen duen zirrara hitz gutxitan azaltzea. Oso sentipen eta emozio biziak dira, oso pertsonalak.

Batzuentzat, animalia paseatzera ateratzea etxetik irteteko, alferkeria gainditzeko, beste pertsona batzuk ezagutzeko aitzakia izan daiteke. Beste zenbaitetan, gure maskotarekin egoteak berak atsedena, konpainia, dibertimendua ekarriko dizkigu.

Azken aldian gero eta gehiago hitz egiten da “animaliekiko terapietz”, alegia, gaixotasun batzuk animaliekiko kontaktu hutsaren bitartez sendatzeko aukeraz.

Animalia baten ondoan bizitzeak dakartzan onura handiak aurkitu dira, tentsio emotibo batzuk gutxitzea, esaterako. Gizartean egokitzeko arazoak dituzten ume askori ere mesede egiten die animaliekiko harremanak, izaki baten ardura beren gain hartzeak, haren erantzule sentitzen baitira; azkenik, guztiok dakigu zenbateko laguntza ematen dieten txakurrek pertsona minusbaliatuei.

Konpainiako animalia bat eskuratzeko hainbat bide dago, baina agian egokiena animalien babeserako zentro batera jotzea eta bertan bat adoptatzea da, inolako kostu ekonomikorik gabe, han txakurrak eta katuak familia berri bat izateko irrikaz baitaude. Izan ere, zentro horietan jasotako txakur eta katuek dute behar handiena.

Animalia adoptatu eta gero, haren portaeraren eta osasunaren arduradun izango gara.

Eta gogoratu

ANIMALIA BATEN ADOPZIOA BETIKO DA



Animaliek pertsonei kutsatu ahal DIZKIETEN GAIXOTASUNAK

Gure maskotek gaixotasunik kutsatu ahal diguten: horrek biziki kezkatzen ditu konpainiako animalien jabeak, batez ere familian umerik bada. Animaliari gaixotasunen bat diagnostikatzen diotenean horixe da gehien egiten den galdera, ea pertsonei kutsatzerik ote dagoen.

Animaliek pertsonei kutsatzen dizkieten gaixotasunei zoonosi deritze. Kontuan izan behar da animaliek gaitz bat kutsa dezaketela gaixo itxurarik ez badute ere; zenbaitetan, bestalde, onik zainduta eta beste animalia batzuetatik aparte egon direnean ere gaitzak har ditzakete. Beraz, “nire txakurra ez da inoiz gaixorik egon” edo “nire katua ez da inoiz etxetik ateratzen” ohiko komentarioak ez dira neurri batzuk ez hartzeko arrazoi nahikoa.

Zoonosi nagusiak parasitoek (parasito zoonosiak), edo bakterio, birus eta onddoek (infekzio zoonosiak) sortutakoak dira. Komenigarria da animaliek pertsoneri nola kutsatu ahal dizkieten gaitz horiek ezagutzea, aurrea hobeto hartzeko.

Hauetako dira **gaixotasunak kutsatzeko bide** nagusiak:

- . Animalien **gorotzekiko** kontaktua.
- . **Jariakinekiko** kontaktua (gernua...)
- . Animalia eta pertsonen arteko **kontaktu zuzena**.
- . **Hozkadak**.
- . **Intsektuen ziztadak**.

1. GOROTZEKIKO KONTAKTUAREN BIDEZKO KUTSADURA

Animaliek hainbat gaixotasun kutsa diezazkiekete gizakiei gorozkien zuzeneko edo zeharreko kontaktuaren bidez.

Gizakiarentzat berebiziko garrantzia duten bi parasito mota deskribatuko ditugu:

1.1.HARRAK: LARBA MIGRATZAILEAK ETA HIDATIDOSIA

Txakurrak eta katuek parasitoen eramaileak izan daitezke, zeinen arrautzak gorozkien bidez kanporatu baitituzkete.

Hesteetako harrek osasun arazoak sortarazten dituzte, batez ere gaur egun oraindik jende gutxi arduratzen delako txakurrek batik bat kalean uzten dituzten **gorozkiak jasotzeaz**. Gorozkietan parasito horien arrautzak egon daitezke eta, horrenbestez, beste animalia edo pertsona batzuk kutsa daitezke gure kale, lorategi eta parkeetan.

Pertsonak gorozkien bitartez kanporatutako arrautzekin kontaktua dutenean harrapa ditzakete gaitz horiek. Esate baterako, txakurrak uzkiaren ingurua miatzatzen duenean gerta daiteke, handik arrautzak atera eta gorputzeko gainerako aldeetara iritsi baitaitezke. **Txakurra laztantzean**, harekin jolastean, milikatzean...

arrautzak gure eskuan gera daitezke eta ahora iritsi. Behar bezala garbitu ez diren **entsaladak janez** ere kutsa gaitzke, edo harren arrautzak dituzten txakur **gorozkiak zapaldu** eta hondarrak oinetakoen zoletan etxera eramaten baditugu, tapizetan gera baitaitezke eta haiek ukituta haurrak kutsatu. Katuek kaka eta pixa egiteko erabiltzen duten **harearen erretilua** garbitu ondoren eskuak garbitzen ez baditugu ere gerta daiteke.

Jende askok uste du bere animaliak ez duela parasitorik gorozkiak normalak iruditzen zaizkielako. Baina oker egon daitezke, gorozkiekin batera atera daitezkeen arrautzak mikroskopikoak izanik ez baitira begiez ikusten.

Har batzuek pertsonengan sor ditzaketen arazo nagusiak hauek dira:

Hidatidosia edo kiste hidatidikoa: ga-rrantzi handia du gizakiari kalte larriak eragin diezazkiokeelako. Har baten larbak sorrarazten du. Nekazaritza edo landa giroekin lotzen da bereziki eta horregatik gero eta gutxiago gertatzen da herrialde garatuetan. **Txakurra da gaitz hori gizakiei kutsatzen dien animalia bakarra.**

Larba migrariak: har batzuen larbak dira, gizakiaren azalean, gibelean edo nerbio sisteman kalteak eragin ditzaketenak.

Gure animaliek espaloietan, lorategietan,... uzten dituzten gorozkiak jasotzea ezinbestekoa da gaixotasun batzuen kutsadura eragozteko




Hesteetako harrek sortutako zoonosien prebentzioa

Neurri hauek hartu behar dira

- . Gure maskotei **aldian behin parasitoak kentzea**.
- . Animaliek kale, lorategi zein parkeetan utzitako **gorozkiak jasotzea**.
- . Jolastu edo laztandu ondoren **eskuak garbitzea**.
- . Gordinik jateko diren **barazkiak behar bezala garbitzea**.
- . Animalien jateko edo edateko ontziak **haiek baino ez dituzte erabiliko**.

Garrantzitsua da eskuak garbitzea gure animaliarekin jolastu ondoren



1.2. PROTOZOOAK: TOXOPLASMOSIA

Talde honetan **toxoplasmosi** deritzon gaitza kutsatzen duen parasittoa nabarmendu behar da.

Katua da gaitz hori gizakiei kutsatzen dien animalia bakarra.

Parasittoa duen katuaren gorotzekin kontaktua izateagatik kutsatzen da, baina gaitza katuen kontaktuaz besteko bidez ere kutsa daiteke:

- . Haragi gordina edo gutxi egina janez edo ukituz.
- . Gaizki garbitu diren barazki gordinak janez.


Gaitz horrek berez ez du arriskurik pertsonentzat, baina **haurdun dauden emakumeen kasuan garrantzi handia du**, haurdunaldiaren lehen hilabeteetan toxoplasmosia kutsatuz gero abortuak edo umekiaren malformazioak gerta bai-

taitezke. Emakumeek gaitza haurdunaldiaren aurretik “pasa” ez badute bakarrik gerta daiteke, horrek immunitatea sortzen baitu, gaitza ezin delako behin baino gehiagotan izan. Horregatik, emakume haurdunei gaitzaren immunitatea egiaztatzeko analisiak egin ohi zaizkie, immunizatuta ez baleude zenbait neurri hartu beharko bailituzkete haurdunaldiak irauten duen bitartean ez kutsatzeko.

Emakume haurdunek kontu handiz ibili behar dute katuekin

Emakume haurdunek toxoplasmosia ez harrapatzeko prebentzio-neurriak

- Etxean katu bat izanez, ez dute harearen kutxa ukitu behar, ez eta lorontzietako edo lorategiko lurra ere, katuren batek bertan kaka egin badu kutsagarria izan baitaiteke.



Horretaz gain, beste prebentzio neurri batzuk har daitezke:

- **Haragi gordina edo gutxi egina ez jatea edo ukitzea.** Izan ere, haragi gordin edo gutxi eginean dauden parasitoaren ale kutsatzaileak dira toxoplasmosia gehien zabaltzen dutenak.
- **Gordin jaten diren barazkiak ongi garbitzea,** kutsaturik badaude ere.

2. JARIAKIN ETA GERNUAREKIKO KONTAKTUAREN BIDEZKO KUTSADURA

2.1. BAKTERIOAK: LEPTOSPIROSIA

Zoonosi batzuk pertsonak animalien gernuarekin, mukiekin... kontaktua dutenean kutsa daitezke.


Leptospirosia, esaterako, batez ere animalia infektatu baten gernuarekiko kontaktu zuzenaren bidez kutsatzen da, bai eta esnea edo abortu baten hondakinak ukituz ere. Horregatik animaliekin harreman estuagoa duten pertsonak (albaitariek,...) errazago harrapa dezakete.

Gure maskoten artean txakurrek baino ez dute harra-patzen.

Ez da gaixotasun arrunta eta jendeak oro har ez du ezagutzen. Dena dela, zoonosi garrantzitsua da, larria izaten baita: gizakiengan sukarra eta giltzurrunetako nahiz nerbio sistemako lesioak eragin ditzake.

Prebentzioa


Gaixotasun horri aurrea hartzeko txakurrak aldiari behin **txertatu** behar dira.



3. ANIMALIEN ETA PERTSONEN ARTEKO KONTAKTU ZUZENAREN BIDEZKO KUTSADURA

Zoonosi batzuk animaliak ukitzean (laztantean, haiekin jolastean,...) gertatzen dira. Beste batzuetan haiek ukitu dituzten gauzen bitartez (eskuilak, mantak, toailak,...) kutsatzen dira.

Horien artean akaroak (hazteriak sorrarazten dituzte) eta onddoak (ezkabiak sorrarazten dituzte) ditugu.



3.1. HAZTERIAK – AKAROAK

Hazteriak hainbat akaro motak eragiten dituzte; armiarma txiki antzeko batzuk dira akaroak, animalien azalean eta belarrietan bizi ohi direnak.

Hazteriek dermatitisak eta azkura eragiten dituzte, eta ilea erorarazten. Dena den, hazteri mota guztiek ez dute eraginik gizakiengan.

Gure maskotaren larruak **alopeziak (soilgu-neak)**, **zarakarrak**, **hanturak**,... baditu, hazteria duela pentsa dezakegu. Gainera, hazteri mota batzuek **azkura** handia ematen dute eta gure txakurra edo katua hazka eta hazka arituko da. Dena dela, ez da gehiegi kezkatu behar, sintoma horiek beste kasu batzuetan ere agertzen baitira (arkakusoek eraginda, esaterako), eta, bestalde, hazteria guztiak ez baitzaizkio gizakiari kutsatzen. Beraz, horrelako sintomaren bat agertuz gero onena albaitariarengana jotzea izango da, hark argituko baitzikigu zalantzak.


Kutsadura gizakiaren eta maskotaren artean kontaktu handia dagoenean gertatuko da, baina ez da oso ohikoa eta pertsonen sistema immunitarioaren egoera txarrearekin, hots, defentsa gutxi izatearekin estuki lotuta egoten da.

3.2. ONDDOAK -EZKABIAK

Gizakien eta animalien larruan bizi diren onddo batzuek ezkabiak sortaraz ditzakete.

Animaliengan **ilerik gabeko gune biribil bat** izaten da zauri tipikoena, **ertz gorriak** eduki ohi dituena. Ile luzeko animalietan ohikoagoa da (pertsiar arrazako katuek, esaterako).

**Akain eta eltxoek
gaixotasun larriak kutsatu
ahal dizkiete gizakiei**



Horrelako prozesuak askotan agertzen dira; gaixo dauden animaliak edo haiekin kontaktuan egon diren objektuak (orraziak, mantak,...) ukituz kutsatzen da. Onddoak beste animalia baten edo pertsona baten larruarekin kontaktua duenean kutsatzea haren egoera immunitarioaren araberakoa izango da. Izan ere, pertsona immunodeprimituak errazago kutsatuko dira.

Ez da gaitz larria, baina desatsegina da eta kosta egiten da sendatzea.

Hazteri eta ezkabien prebentzioa.


- . Aldian behin maskoten larrua eta ilea aztertzea, gaitz horiek eragindako lesioak ahalik eta azkarren antzemateko.
- . Haiekin erabiltzen ditugun toailak, mantak, eskuilak,... **haientzat bakarrik** izango dira.

4. HOZKADEN BIDEZKO KUTSADURA.

4.1. AMORRUAREN BIRUSA.

Oso gaixotasun larria da, hilgarria askotan, hozkaden bitartez kutsatzen dena. Birus batek eragiten du. **Herralde garatuetan noizean behin baino ez da gertatzen, eta guztiz desagertutzat ere jotzen da**, luzaro amorruren kontrako txertaketa nahitaezkoa izan delako.

Euskal Autonomia Erkidegoan amorruren kontrako txertaketa gaur egun ez da nahitaezkoa, gaitz desagertutzat jotzen baita. Dena den, hurbileko beste autonomia erkidego batzuetan nahitaezkoa izaten jarraitzen du.



Borondatezkoa bada ere, gomendagarria izan daiteke txertoa jartzea.

Kutsatzeko bide nagusia animalia infektatuaren **hozkada** da, birusa batez ere txistuaren bitartez kanporatzen baita, animaliak gaitzaren sintomak azaldu aurretik ere.

Prebentzioa

Amorruari aurrea hartzeko **txertaketa** arau egokiei jarraitu behar zaie, zeinak al baitari batek zehaztuko baititu.


5. INTSEKTUEN ZIZTADEN BIDEZKO KUTSADURA

Batik bat akainak eta eltxoak dira pertsonen animalien gaitzak kutsatzen dizkietenak.

5.1. AKAINAK.

Akainak animalia eta pertsonen larruan iltzatzen dira. Odolez elikatzen dira eta pertsona bati “hozka” egiten diotenean gizakiari gaitzak sortaraz diezazkieketen parasitoak sartu, hala nola Lymeko gaitza, rickettsiosi exantematikoa edo akainek eragindako paralisia, oso ezagunak ez badira ere, gizakiei kalte larriak eragin ahal dizkietenak.

Horrenbestez, transmititzailearen garrantzia azpimarratu behar da, akainak nahiko maiz egiten baitio hozka gizakiari. Hori gertatuz gero, osasun etxe batera joatea da onena, bertan behar bezala atera dezaten. Dena den, akain guztiek ez dituzte gaitz horiek sortarazten dituzten parasitoak transmititzen eta, beraz, akainen hozkada guztiek ez dituzte kutsatuko.



Prebentzioa

Txakurrek akainik ez izateko produktu ugari dago, oso eraginkorrak: lepokoak, aerosolak, anpuluak,...

Animalien larrua aztertzea ere komeni da, horrelako intsektuak ahalik eta azkarren antzemateko.

5.2. ELTXOAK

Eltxoak ere odolez elikatzen dira, eta gizakiari hainbat parasito kutsa diezazkiokete hozka egitean. Akainekin gertatzen den bezala, eltxo guztiek ez dituzte parasito horiek transmititzen. Kutsa ditzaketen gaitzen artean leishmaniosia eta filariosia dira garrantzitsuenak.

Leishmaniosia

Oso gaixotasun ezaguna da eta gero eta zabalduago dago gure inguruan, ez baita ez prebentzio neurririk ez sendatzeko tratamendu guztiz eraginkorrik, nahiz eta kontrola daitekeen. Gaitz horren kutsaduran eragin handia du immunitateak, hau da, gizakien nahiz animalien gorputzak defenditzeko duen ahalmenak; horrenbestez, benetako arriskua pertsona immunodeprimitei (defentsa gutxi dutenei) mugatzen da.

Sintomak askotarikoak dira: azaleko zaurietatik hasita gibel, bare edo giltzurrunetako gaitzetaraino.

Filariosia

Orain arte txakurren gaixotasuna zela uste zen baina egun katuei ere eragiten diela frogatu da. Gizakiei kutsatzeko aukerarik bada, baina oso txikia da. Gehienetan ez du sintomarik, baina batzuetan eztula, arnasestua edo arnasteko beste eragozpen batzuk sortaraz ditzake.

Eltxoek kutsatutako gaixotasunen prebentzioa

Pertsona zein animalientzat **intsektuak uxatzeko** produktuak erabiliz hartu ahal zaie aurrea gaitz horiei, edo eltxoak ugari diren inguruak saihestuz: **klima bero eta hezeak**, ur geldia dagoen lekuak,...

PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK

Tratamendurik onena prebentzioa da. Horixe da esaldirik biribilena, aholkurik onena, gomendiorik garrantzitsuena. Animaliak aldian behin al baitariarengana eramane eta haren aginduak betez gero esan dugunak ez zaituzte gehiegi kezkatu behar.

Hainbat gaixotasun aipatu dugu, baina izenek beldurgarri eta sintomek kezkarri badirudite ere, gehienak ez dira ohikoak. Hala ere, oinarrizko arau batzuei jarraituz gero arriskuak gutxituko ditugu eta gure maskotekin harreman atsegina izatea lortuko dugu. Hona hemen arau nagusiak:


- **Parasitoak kentzeko programa** zuzen bat, parasitoek transmititzen edo eragiten duen gaitzik ez hartzeko: akainak, arkakusoak, eltxoak, hesteetako harrak eta akaroak.
- **Txertaketa** programa egokia, bai gizakiei kutsatu ahal zaizkien bai bakarrik animaliei eragiten dizkieten infekzio gaixotasun garrantzitsuenei aurrea hartzeko.
- **Elikadura eta higie**ne programa egokia, prebentzioaren osagarri; animalia osasuntsuek defentsak prest izango dituzte horrelako gaixotasunei aurre egin ahal izateko.

GIZAKIEK HARRAPA EZIN DITZAKETEN GAIXOTASUNAK

Gure animaliei gehien eragiten dieten -eta gehien entzuten diren- gaixotasunetako batzuk ezin zaizkie pertsoneri kutsatu. Txakurren gaitz batzuk, hala nola mukieria, trakeobronkitisa (“txakurtegiko eztula”), parbobirosia, koronabirusa edo hepatitis, ez dira arriskutsuak gizakientzat. Ez eta katuek har ditzaketen gaitz batzuk (leuzemia, immunoeskasia, peritonitis infekziosoa edo panleukopenia) ere. Dena dela, gaixotasun horiek txakurkumeak eta katakumeak txertatuz eta birtxertatuz eragotzi ahal eta behar dira.

Bi hilabete inguru dutenean komeni da albaitariarengana lehenengoz eramatea

Txertaketa, parasito kentze, elikadura eta higiene programa egokiak funtsezkoak dira gure maskoten ongizatea bermatzeko



Animalien eta pertsonen arteko elkarbizitza atseginago bihurtzeko GOMENDIOAK



Bizitzeko leku desegokia badute, denbora gutxi eskaintzen bazaie edo behar bezala hezita ez badaude txakurrek usainak eta zaratak eragin ditzakete eta herri-tarroi enbarazua sortu.

Errepidea kontrolpean gurutzatzen ez badute, auto-istripuak eragin ditzakete. Orobat, haiei eusteko (lepokoa eta uhala) nahiz segurtasunerako (muturrekoa) nahitaezko neurriak hartu ezean, herritarrei nahiz beste txakurrei eraso egin diezaiekete.

Txakurren jabeak dira horien ekintzen eta osasunaren erantzule, beraz:

- . **Hezi ezazu:** ohitura desegokiak dituen txakur batek arazo larriak eragin diezazkieke gizakiei nahiz beste animaliei.
- . **Ongi zaindu:** Jabeak jaten eta edaten eman behar dio animaliarri, eta ariketa fisikoa, osasun laguntza eta bere beharrei egokitutako bizilekua eskaini.
- . **Eragotzi nahi gabeko kumaldiak:** galde ezazu dauden antisorgailu metodoei buruz eta horrela kumeak hil edo abandonatu behar izatea eragin lezaketen kumaldiak eragotziko dituzu.

Konpainiako animalia batek poz handia ematen digu baina, era berean, gure gain hartu beharreko **betebehar** batzuk ere ekartzen dizkigu, ororen mesede:

- . **Txakurra identifikatu mikrotxip baten bitartez.** Animalia galduz gero, sistema hori baliagarria izango da non dagoen jakiteko. Bizitoki eta jabe aldaketak, bajak, etab. garaiz jakinarazi beharko dira.
- . **Eraman ezazu behar bezala:** pertsonak ibiltzen diren lekuetan zaudenean, bide eta parke publikoetan, esaterako, eramán ezazu lotuta **lepokoarekin** eta gehienez ere bi metroko luzera duen **katearekin**.

Gainera, zure txakurra **arriskutsua izan daitekeen animaliatzat** katalogatuta badago:

- . Inskriba ezazu dagokion erregistroan, eta eska ezazu beharrezko administrazio baimena. Txakurra ateratzen duzunean **aldean eramán** beharko dituzu agiri horiek.

- . Txakurrok leku nahiz gune publikoetan ibili ahal izateko **muturrekoa** eta gehienez ere **bi metroko katea edo uhala (luza ez daitekeena)** eraman behar dute.
- . Pertsona batek gehienez ere horrelako txakur bat paseatu ahalko du.

Gomendio eta arau hauek sen onean oinarritzen dira eta pertsonen eta konpainiako animalien arteko **elkarbizitza** erraztea dute helburu.

Guztion artean istiluak eragotzi eta harremana ahalik eta atsegina izatea lortzen saia gaitzke.

Goza ezazu zure konpainiako animaliarekin eta gogoan izan: HURA ZAINDUZ, GEURE BURUA ZAINTZEN DUGU

